

PRENTSA AGIRIA

BAIONAKO BESTAK 2024

Ibilaldi argiztatu eta olinpikoa 10 gurdirekin uztailaren 13 larunbatean eta 14 igandean

2024ko Baionako Besten Ibilaldiak olinpismoa ospatuko du 2024ko Pariseko Jokoen kariatara, txiki nola handien xarmatzeko! Gurdien asmatu eta gauzatzeko engaiatu diren elkarteetako kide bolondresek aurten berriz ere gainditu dituzte ahaleen mugak maila handiko ikuskizuna eskaintzeko. Berririk? Bai, baionarrak epaimahaikide izan daitezke, izena ematen duten hautagaien artean eginen den zozketa baten ondoren. Zatozte larunbat eta igandean ibilaldiaren ezagutzera.

Baionaren besta ondarearen harribitxia dugu Baionako Besten Ibilaldi argiztatua eta, urtero, denboraz at den unibertso magiko batera eramaten ditu ikusleak. Ekitaldi horren jatorria *Aviron Bayonnais* klubeko errugbi taldearen garaipen ospetsua da, 1913an Frantziako txapeldun izatera heldu baitzen. Balentria historiko horren seinatzeko, kranpoi erraldoi batez eta baloi arroltzekara batez luxu handiz apainduriko gurdi bat ibili zen Hiriko karriketan, ororen mirespena sortuz.

2024ko Ibilaldiak Parisera eramaten ditu adin orotako ikusleak, 2024ko Olinpiar Jokoak eta joko horien historia ospatzera. Aurten ere, sutsuki aritu dira elkarteak, hainbat hilabetez, gero eta liluragarriagoak diren gurdiak sortzen. Zoramendu horren egile porrokatuak, beti laguntzeko prest diren bolondres horiek beren denboratik ematen dute eta guztiek nahi dute podiumaren gain-gainera igo, Zumbaiona elkarteak bezala (maien eta azteken zibilizazioen gaiarekin) 2023an irabazi baitzuen, gibeletik zituelarik Mugerreko Adiskideak eta Peña Baiona.

Ibilaldiaren gurdiak ikusgarri izanen dira larunbat eta igandean, 18:00 orenetatik goiti, Alsazia-Lorrenako hiribidean. Ibilaldia 22:00 orenetan abiatuko da Santizpirita auzotik; gero Santizpirita zubia pasa eta Leclerc marexalaren hiribidea ibiliko du, gero Bernède karrika, Askatasunaren plaza, eta Santizpirita auzora itzuliko da.

Hona gurdiek ibilbidean ukanen dituzten lekuak, iragan uztailaren 5ean egin zozketak hala erabakirik:

- 1/ Evah elkarteak irekiko du ibilaldia olinpiar jokoan ikurren eta maskoten gurdi batekin,
- 2/ Sokorri Katolikoaren gurdia «Munduko kirolariak Parisen bildurik»,
- 3/ Rail Bayonnais elkartearen gurdia «Paris 1924 – 2024, Olinpiar jokoetan 100 urte»,
- 4/ Entente castillon delakoaren gurdia surfari buruz,
- 5/ Zumbaiona elkartearen gurdia olinpiar jokoan irekitze ekitaldiari buruz,
- 6/ Secours assistance delakoaren gurdia «Les olympiades de Poudlard-en olinpiadak» izenarekin,
- 7/ Ipar Baionaren gurdia: «Asterix olinpiar jokoetan»,
- 8/ Pottorak klubaren gurdia: «Pari(s)s Olympique-Paris olinpikoa»,
- 9/ Mugerreko Adiskideen gurdia: «Mario olinpiar jokoetan»,
- 10/ Euskaldun Buruak taldearen gurdia: «Sonic olinpiar jokoetan.

FESTARIAK IBILALDIAREN EPAIMAHAIKIDE

Zozketan parte hartzeko aukera baionarrek dute. Parte hartzeko, honako inprimaki hau bete: <https://forms.gle/j6BiaMxY67ci33if6>

Heldu den ostegunean egingen da zozketa eta hortik aterako dira ibilaldi argizatuaren epaimahaikide izanen diren lau pertsona (2 emazte & 2 gizon) (2 pertsona larunbatean & 2 pertsona igandean).

Sari banaketa uztailaren 15ean egingen da, 18:00etan, Herriko Etxearen Areto nagusian, parte hartu duten elkarteak bertan direlarik.

Baionako Hiriaren prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr